



Newsletter 2018 • [www.socialistasdeirun.com](http://www.socialistasdeirun.com)



## Betetako konpromisoak: hego ingurabide berria eta Arbesko adinekoentzako egoitza

Irungo Sozialistok, José Antonio Santano alkatea buru genuela, denbora luzean borrokatu gara hego ingurabidea eta Arbesko adinekoentzako egoitza gauzatzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiak, gai horien gaineko eskumena duen erakundea den aldetik, askotan ez ditu bete epeak, baina, azkenean, aurten, irundarrek luzaroan errebindikatutako bi eskaera horiek martxan jartzeko bi hitzarmenak sinatu ditugu. Albiste paregabea Irunentzat.



## Autobus elektriko berriak Irunen

Mugikortasun jasagarriaren aldeko apustuaren aitzindari, Irunek Euskadiko lehenengo autobus linea % 100 elektrikoa izango du 2019an, eta, haren bidez, milioi bat bidaiari baino gehiago mugituko dira urtean.



## Gure lehentasuna: politika sozialak eta adinekoentzako arreta

Aurten, berriro ere, Irungo Sozialistok politika sozialak sendotu ditugu, gehien behar dutenentzako arreta hobetzeko. Era berean, adinekoek aisia emateko eta elkarrekin egoteko auzo mailako lokalen sare bat sortzeko konpromisoa bete dugu.



## Gazte ekintzaileentzako laguntza

Irunek baditu berrikuntzaren eta etorkizuneari Irunen lan egitearen alde egiten duten talentu handiko gazteak. Bada, gure esker ona eta laguntza dute bertako enplegua sustatzeko.

También ha sido noticia..(accede con "Ctrl+clic" en el titular)



### Irunekin konprometituta

Irunen interesen defentsa, eta, horren adierazgarri, udal aldizkariko gure artikuluko politikoak



### Herritarrek parte hartzeko prozesuen adibideak

"Alkatea auzoetan" programa eta aurrekontuak parte hartze bidez egiteko prozesuak herritarrei aktiboki entzuten diegun adibideak dira.



### Bertako ekonomiaren sustapena

Enpresak sortzeko, saltoki berriak irekitzeko, ekiteko laguntza eta baliabideak ematen jarraitzen dugu.



### Irungo Sozialistok urtea ondo amaitzea eta 2019an onena izatea opa dizuegu.